

derecho a privar a sus descendientes de la herencia riquísima de su idioma vernáculo, que constituye el exponente más calificado y el fruto más rico del genio de la raza.»

Como aconsejó aquel gran vascófilo que tanto honró a Euskaltzaindia, Julio de Urquijo: «...es preciso que los trabajos y esfuerzos existan y que todos y cada uno de nosotros, aislada y colectivamente, coadyuemos al resurgimiento del idioma».

A este respecto tenemos un buen ejemplo de cooperación y desarrollo incremental con las campañas de alfabetización, organizadas por la Academia, para enseñar a leer y escribir a los vascos parlantes (necesidad imperiosa, porque a los vascos no se nos ha enseñado nuestra lengua en las escuelas), está dando resultados óptimos en algunas zonas de Guipúzcoa, y es necesario propagar por toda la superficie de habla euskérica. Que además de enseñar a leer y escribir se dan nociones de literatura vasca.

Pues también es preciso decir que existe una literatura vasca tradicional, «más bella y original de lo que se suele decir», como dijo el profesor Lafón, de la Universidad de Burdeos.

A su vez, la literatura moderna ha alcanzado un desarrollo insospechado, y hoy se cuenta con buenas publicaciones y extraordinarios cultivadores de las letras.

Comprendemos que la labor a realizar para vitalizar nuestra lengua es una tarea larga y dura, pero no desalentadora. Todo euskaldun consciente debe aportar su grano de arena.

Las discordias mantenidas antaño de sí interesa o no la salvación del euskera para el desarrollo cultural de nuestro pueblo, ya no se discute entre personas que se precian de cierta cultura. Pues desde entonces, la ciencia lingüística y la sociológica han evolucionado de manera favorable a la defensa de todas las comunidades por muy pequeñas que éstas sean. La Academia confía en los modernos conceptos y en el tesón del pueblo vasco.

Juan San Martín

Secretario de la Academia de la Lengua Vasca

EUSKAL - AKADEMIAREN AGIRIAK

Donostian, Diputazioaren jauregian, 1965-I-29.

Bildu dira: Lofitte jauna buru, San Martín, Villasante, Haritschelhar, Larzabal, Satrustegi, Labayen, Arrue, Zavala ta Irigoyen euskaltzaiñak. Juan Maria Lekuona, Artola, Zubikaray, Julene Azpeitia, Artetxe eta Valverde urgazleak.

Mitxelena, Lojendio eta Anai Berriotxoak ezin etorria adierazo dabe.

Aurreko batzar-agiria irakurri da eta ontzat artu da. Arruek berba egin dau zenengo bertsolarien txapelketetz. Diño Donostiko txapelketea dala-ta, oraindiño kontu guztiak zeatz egin barik badagoz be, eun eta ogei milla peseta sartu dirala Euskaltzaindiaren izenean bankuan eta zeatasun guztiak eginda gero geiago sartuko dala. «Centro de Atracción y Turismo»-kin izan ditugun artu-emonen barri be emon dau. Diño bertsolarien sariketetan juradu ibilli diranen artean bazkari bat egin leitekeala eta ontzat artu da. Diño, gaiñera, dirutza orretarik zati on bat bertsolarien arazotarako itxi leitekeala. Esaterako, Mitxelena bersolariari aita jako eta bosteun peseta emon leioz meza eta olangoetarako. Batuta dagozanari ondo irudituten jakle. Eskerrak

emon bekiez erregaluak bialdu dabezanaí eta Anoeta-ko Frontoíari. Tolosa-n egin zan Gipuzkoako azken txapelketa nagusia eta bertako Ayuntamentuak egin zituan presta-menak. Irabazietatik erdia emongo ei deuskue. Batzarrekoak oso pozik artu dabe ber-
tsolariakaz egin dan lan andia eta lan egin dabenaí eskerrak emotea erabagi dabe.

Ondarroako sarien gaiñean berba egin da gero. Erabakiak oneik dira.

Poesia saria: «Bear zaitut laga». Egillea: Antonio Bilbao Monasterio.

Teatro saria: «Historia triste bat». Egillea: Salvador Garmendia.

Mariñel giroko narraziñoa: «Amonatxo zaarrak eta ur txakurrak». Egillea: Agustín Zubikaray.

Baserri giroko narraziñoa: «Arnobarrengo Iñaxio». Egillea: Tene Muxika.

«Domingo Agirre apaiz»: «Domingo Agirre-ren eliz-itzaldiak». Egillea: Aita Luis Villasante.

Ondarroako Ayuntamentuari jakinerazi jakon eta abenduaren 20-an egin zutuezan sari emoteak lore-jokoetan.

Gero Erkiaga-ren karta bat irakurri da. Bere eretxia azaltzen dau poesia sariaz eta diño poema sarituaren funtsa ta muñia eztala itxasoa, eskatzen zan moduan, oler-kariak itxasoa aipatzen badau be. Bere berben barri agirian jartzen da.

Gero liburuaren argitaraldi barriaz, zadorlariak itxi dituen agiriak irakurri dira. Gipuzkoako Aharro-Kaxak Euskaltzaindiari 70.000 peseta itxi deutzaz, korridu barik, liburuá saldu-ala, sei illabeterik sei illabete zorra al dan moduan kitzazekotan. Diru orregaz guztiz ordaindu da Barcelona-ko Juan Flors argitaratzaileagaz gendun zorra. Gaiñera, 10.000 peseta emon ditu, euneko 20 kenduaz erosi dituen 50 aleakaitik. Gi-puzkoako Diputaziñoak 100 ale erosi ditu bere aldetik eta Bizkaikoak, barriz, 75.

Anai Berriotxoa'k bialdu dauen nota bat irakurri da eta agertu diran Kuadernuen barri emoten dau.

Bilboko iru euskaltzaiñen eskutitzak (Aita Akesolo, Erkiaga eta Gorostiaga-renak) irakurri dira, zadorlariak egin eutsiezanaí erantzunaz, Euskaltzaindiaren batzar-kar-guak dirala-ta.

Juan San Martin-ek Julene Azpeitia egiten ari dan silabarioaren barri emon dau eta Julene Azpeitia-k itaun batzuk egin ditu zelan aurrera jarraitu. Atsegín andiagaz entzun jako esan dauen guztia eta lan ederra egiten ari da guztien eretxiz.

Gero zadorlari ordezkotzaren egitekoz eta sariaz berba egin dabe bilduak. Eraba-girik artu barik, urrengo batzarreko itxi da gaia, orduan luzatu barik erabagi dedin.

Urrengo batzarrean lenengo tratatu bear dan gaia «zadorlari ordezkotza: egitekoak eta saria» da.

Oi dau otoiñzagaz asi ta amaitu da batzarra.

Euskaltzainburuordea (1)

P. LAFITTE

Zadorlariordea

ALFONSO IRIGOYEN

Donostia'n, Diputazioaren jauregian, 1965-II-26.

Bildu, dira: Arrue, Haritschelhar, Irigoyen, Labayen, Larzabal, Lekuona, Lafitte, San Martin, Mitxelena, Satrustegi, Aita Villasante eta Aita Zavala eukastzaiñak, eta Aresti eta Zatarain urgazleak. Berriotxoa Anaia, Lojendio'k eta Zukasti'k ezin etorria adierazi dute.

(1) Euskaltzainburuaren faltaz euskaltzain zaharrenak egiten du mahaipuru bere orde eta sekretarioarenean euskaltzain gazteenak.